

# LEIZARRAGARI omenaldia

## Beskoitzen

eta

# EUSKAL KULTURAREN ASTEA

## Baionan

Juan San Martín

(Euskaltzaindiko idazlari)



**Testamentu Berria** euskaraz lehen argitaratzearen 400. urteburuan, Euskaltzaindiak biltzar deiak zabaldu zituen Leizarraga itzultzaileari bere sorterriaren omenaldi bat eskaintzeko, uztailaren 4'an. Garai berean, Euskal Kulturaren Astea antolatua zen Baionan, uztailaren 3'tik 16'ra.

Hilaren hiruan zelatari gisa hurbildu ginen Baionara. Goizerdian iriki zen Baionako ferian euskal kulturari eskainitako liburu eta diskoen feria, bi egunez iraungo zuena. "Jakin" eta "Mende Berri" liburu-denak, eta "Goiztiri" argitaldariak jarri zituzten beren estand horietakoak, eta Baionako etxe horiekin baitan Donostiako "Manterola" liburu-dendak, Tarteko, kantari taldeek alaitzen zuten bertako giro ederra.

Salmentek berririk ez badakigu ere, ikusleak interez handiarekin galde eta ikertzen zituzten han agertuak, nahiz liburuetan eta nahiz diskoetan.

Egun guzia igaro genuen feriatik irten gabe, bertan zelako jateko aukera ere. Eta, mugaren alde bietako ezaguniki anitz agurtu bagenuen ere, mugazandiko idazle eta kulturazale asko ezagutzera heldu ginen.

Liburu eta diskoen sari-keta ere egin zen, han bertan larunbat arratsaldean eman zen mahiburuaren

erabakia. 1965'etik honerat argitaratutako liburuen artetik:

Euskarazko liburuetan, jakintza gaiez, Salbador Garmendiaren **Lurraren kondaira-ri** eman zitzaion lehen saria, eta ohorezko aipamena Andoni Sagarnaren **Soziologiaren hastapenak-ri**; euskaraz, haurrentzako liburu sailean, Aingeru Irigaray-k gertatutako **Jostatuz, mintzaira ikasi**, eta ohorezko aipamena "Margo Ederdun Enziklopedia"-ri; alde orotarik begiraturik, euskaraz, **Isturitzetik Tolosan barru-ri** bere bitxitasunagatik; eta Txillardegiren **Huntaz eta Hartaz-i** saiaera berezia dalako. Euskal kulturari buruz erdaraz idatzitako libururen artetik, bere zientifiku lanagatik, Jean Haritschelharri **Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun** eta **L'oeuvre poétique de Pierre Topet Etchahun** izeneko bi liburuagatik; obra eta edizioen aldetik, M. Llano Goroztiza eta Artes Gráficas Grijelmo, S.A.-ri **Pintura Vasca** izeneko liburuagatik.

Azken urte betean argitaratu den diskorik hobere-naren saria, Eñaut Etxamendiren "J. Elosegí"-ren kanta duen diskari.

Han kantatu zuten kantari taldeetan artean ere izan zen sariketa, Euskal Herriaren sei aldetakoak

hartu zuten parte. Kantaberri sailean, Bilbaoko "Hoskorri"-k eraman zuen lehen saria; eta zortzikoteen sailean Añorgako taldeak irabazi zuen.

Beraz, sariz ondo hornitua izan zen eta egun bikaina larunbat hura.

Biharamunean, lehen orduan Beskoitzen ginen. Goizeko hamarretan herri-meza, Diharze "Iratzeder", Villasante, Lafitte, Irigaray gaztea eta Beskoitzeko erretorak ofiziatua. Iratzederren hitzak, euskaraz lehen aldiz Kristoren hitza idatzi zuen Leizarragari eskainia zen, Kalbinista ba zen ere, kristau zanez.

Meza ondotik, jendez beterik zen eleiza eta herriko-etxearen tartean den plaza-txoa, bereskoitar eta herbesteko, denak euskaraz mintzo ziren. Hamaika t'erdietan, herriko-etxearen atadian, Jean Eyerabide auzapez jauna mintzatu zen, han bilduak herriaren izenean agurtuaz eta Leizarraga bereskoiztarra goretsiaz, esanez lagun proximoaren pentsa-molde desberdinak errespetatzea behar dugula, eta ezaugarri honegatik biltzen garena Leizarragaren omenez, hura ere bera zen bezala errespetatzen eta goratzen dugulako bere **Testamentu Berria** deitu liburuaren 400. urteburuan, Gure programan espero ez genduna



izan zen Beskoitzeko auzapez jatorraren anaitasuneko hitzaldi samurra. Beskoitzeko kantari andana batek Leizarragaren ohorez gertatutako kanta bat kantatu zuen.

Plazan, Zabala txistulariaren doinuaz herriko gazte eta gaztetxo andana bat dantzatu zen.

Herriko-etxeko gela nagusian, Euskaltzaindiaren bilera idekia, herriari begira antolatua, hasi zen. Jenderik anitz ba zen, eta bertan bildu ziren herritar, euskaltzale, Euskaltzaindiaren laguntzaile eta euskaltzainak. Euskaltzainen arteko genituen Villasante buru, Haritschelhar buru-ordezko, Arrue, Dessance, Diharce, "Iratzeder", Epherre, Irigaray, Irigoyen, Lafitte, Lafón, Larzabal, Zabala eta kronika honen egilea.

Lehenengoz Villasante euskaltzain-buru mintzatu zen, bilduak, Beskoitzeko herria, harrera bikaina egin digun auzapeza, erretore jauna agurtuz, zerek ekarri gaituen adieraziz eta hizlariak presentatuaz. Bukatzeko, Eyherabide auzapez jaunari eskerrak eman zizkion.

Jean Haritschelhar euskaltzain buru-ordeak, Piarres Duny Petre-ren ("Piarres Hegitua") letra irakurri zuen, bertsoz egina, Leizarraga zena eta bilduak agurtuaz. Eta, ondoren, hizlariet hitza eskaintzen die.

Lino Akesolo jaunak Leizarragaren garaiari buruz, batez ere garai hartan eta ordurarte euskeraz idatzi zenari buruz. Eskerrak orduan iratzartu zen giroari heldu zela Axular bezala idazlea.

Piarres Lafitte jaunak jarraitu zion, Leizarraga nor zen adieraziaz. Bertan, orainarte izkutuan ziren puntu asko agerrera zitu.

René Lafón irakasle jaunak, euskaraz honek ere, Joanez Leizarraga itzul-lari eta idazkari bezala agertu zigan; errege-bideko euskaraz hura, Lapurdi-Baxena-

barren oinharriturik ba zen ere, euskalki guzien gaine-tik euskaraz idatzi batera-tuta begira egin zuela.

Gauza berririk asko ezagutuz heldu ginen hitzaldi horietako esker. Iduriz hain urrutit genuen euskal izkribatzaile hura hurbildu zigan. Ikaskizun ederrik izan genuen. Hura ez zen alperreko bilera izan. Izan ere, noiz nahi etzaio gertatzen euskal literaturari liburu baten laurhun urteburua betetzea.

Beskoitzeko Salinen den jateke batean bazkaldu genuen, eta bazkaldoan, Haritschelhar jaunak irakurri zuen Montzon eta Alvarez Enparantza euskaltzain laguntzaileen gutun bat, herbestetik oroit direla Leizarragaz eta bere omenez biltzen diren lagun oroz. Arrue jaun euskaltzain mintzatu zen mugaz alde batekoen izenean bestaldekoie anaitasuna agertuaz eta elkartasuna eskatuaz.

Villasante jaun euskaltzainburuak, "Euskera" aldizkariaren batzordekoen gogoaz agertu du, aldizkari honetan Leizarragaren **Testamentu Berria** argitaratzeko, egun berean Akesolo, Lafitte eta Lafónen eman ziguten hitzaldiak hitzaurre bezala jarriaz. Haritschelhar euskaltzainburu-ordezkoak, ere berean, on dela agertu du, nahiz egungo ortografiaz jarria edo nahiz lehen argitalpena orriz-orri fotokopiatuak, hura zen bezala. Han zirenak oso pozik entzun zuten berri hau, zeren ez baitira salgai aurkitzen azken aldiz Dodgson eta Schuchardt-ek egin zituzten edizioak.

Lafitte jaunak dionez, ingelesak argitaratzeko gertu omen dira guk hemen 5.000 harpidedun egingo bagenituzke. Baina hainbeste lortzea nekeza ikusten da eta guk gure aldetik egin behar dugu argitaralpena.

Holako egintza asmoz beteriko solas ederrekin bukatu zen bazkalondoko giro ederra.

Baina, bitartean, beste-

lako solasik ere izan genuen han ziren zenbaitekin. Lehendik elkar ezagutzen ez ginenen artekoetan mintzatu ginenetak solasik atseginena, noski, Martze-lin Hegiaphalekin izan genuen, Zuberoako Sohütan sortua, hirurogei urte dituen eta Euskaltzaindiko laguntzailea, zazpi pasturalen egilea. Galde genion ia noregandik edo zelan ikasi zuten pasturalgintza, eta bere gurasoengandik zetorkion ohituratikakoa zela agertu zigan. Bere aitona 72 pastural idatzi bai zituen; etxe-erreketa batean batzuk galdu zirela baina gehienak berak gordetzen dituela esku-izkribuz. Gure herri-literaturaren dohainetarikoa bat pasturalak direnez, gure liburu argitaldaria, ikusten dugunez, oraindik ba dute non lana egin. Oraindik, literatura alorretatik ez bai dugu zeta guzia jaso.

Holako giroz eta harmenez finitu zen Beskoitzeko egun zoragarria. Bi-haramunean, astelen goizean, igazitik hasi zen Baionako kultura asteari hasiera eman zitzaion. Gai orokorra, "Kultura gaur Euskal Herrian", Musée Basque-ko gela nagusian hila-ren zortzira arte, P. Charritton eta J. Haritschelhar jaunen zuzendaritzapean. Lehenengo egunean bakarrik egon ginez, ezina zaigu bertako xehetasunak ematea, baina astelen hartan giro ederra zen, egun oroz joan ziren ehundik gorra entzule, ia gehienak estudianteak, mugaren bi aldeetatik.

Kultura aste huntako hizlariak, zuzendari biez gainera, J. Azurmendi, J. López, P. Narbaitz, B. Laxage, I. Larrañaga, E. Larrea, J. M. Azurza, A. Zelaleta, J.-B. Dirassar, G. Alfaro, P. Larzabal, I. Beobide, D. Landart, A. Labayen, A. Zubikarai, A. Lasa, M. Tanbourin, P. Zabaleta eta kronika honen idazlea. Bakoitzak bere gai bereziak zituen: Kultura gaur zer den, euskal edizioak zer



joera duten, Marxismoa gaur Euskal Herrian, Kultura aldaketak gure historian, euskal astekariaren buruzagiekin mahain biribila, nekazaritzaz eta gaurko teknikaz, euskal teatroa zertan den, ikastolak zertan diran, eta abar. Hitzaldi guztiak elkarrizketaz jarraituaz, elkarrizketa ho-

rietan parte hartzeko esku-bideak guztiak dutelarik. Dena euskara hutsean.

Mugaz harandikoak ahalmenik eta kemenik aski erakutsi daukute, jendez, antolamenduz eta gaiez. Hemen zenbait entzundako elea, hango euskaldunak moteldurik eta erdihilik direla; beren ekintzaz

eta egintzaz argi eta garbi adierazi daukute ez dela egia. Beraz, ez gara asko uste duten bezain tipiak. eta kemenik anitz ekarri dugu han ikusi eta han ikasi eta entzun dugunagatik.

Bada- ezbadako iritziak zabaldu baino lehen, behar dugu elkar hobeto ezagutu.

Abuztuko 4ean, arratsaldeko 4-etan, Euskaltzaindiak bere hileroko batzarra egin zuen Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian.

Hona hemen batzarrean erabili ziren gaiak:

Euskaltzaindiko laguntzaile zen Jose Maria Iribarren jaunaren heriotzearen berri eman zuen euskaltzainburu jaunak. Iribarren jauna, "Vocabulario Navarro" eta beste zenbait lan aipagarriren egile da.

Jose Luis Lizundia idazkari ordeak, E. Erkiaga diru zainaren izenean, txosten bat irakurri zuen, Apiril-Maiatz eta Ekaineko diru gortabeheren berri emanez.

Juan San Martin, Euskaltzaindiko Idazkariak, Deustoko Unibersidadearen eske bat irakurri zuen. Eske hortan hauxe dator: euskal irakasle izateko gaitasuna frogatuko duen agiria Euskaltzaindiak eman dezala. Aita Altunak, Anaia Berriotxoaren laguntasunaz, azter beza arazo hau. Berebat, Kintana jaunak beste txosten bat ekarriko du, euskeraz irakasteko gaitasuna zer nolako azterketen bidez egizta diteken erakutsiz.

Idazkari jaun berberak Antonio Zabala euskaltzaindiaren lan bat irakurri zuen. Bertsolarien txapelketak era berri batez antolatzeke zer nolako urratsak eman diren azaltzen du.

Ordoen euskaltzainburuak Idatzarrietazko batzordeak prestatu duen txostena irakurri zuen: "Loturik ala bereiz idatzi behar diren hitz, aurrizki eta atzizkiak". Luze jardun zuen batzarrak txosten hau aztertzen. Batzarra gehiegi ez luzatzeagatik, punturik zailenak hurrengorako utzi ziren eta gainera-

koak onartuak izan ziren.

Jose Mari Lojendio euskaltzain jaunak Araudia berriztatzeke batzordeak egindako lanen berri eman zuen.

Luis Mitxelena euskaltzain jaunak Aditz batuaren batzordeak Baionan abuztuaren 3an egin duen bilkura eta lanaren berriak eman zituen.

Juan San Martin idazkari jaunak Etxegintza Hiztegia prestatzeke batzordearen lanen berri eman zuen.

Idazkari jaun berberak Gaur-ekoek Euskaltzaindiaren aginduz euskeraren egoeraz egin duten lanaren berri eman zuen. Elgoibar, Errenteria eta Pasairi buruz da oraingo lan hau, gero Euskalerrri osoan egingo dutenaren aurrerapen gisa. Lan honetatik lerro batzuk kentzeke Gaur-ekoei eskatzea erabaki zuen batzarrak.

Ruiz Urrestarazu laguntzaile jaunak xehetasunak eman zituen Euskaltzaindiak Irailaren 5ean Aramion egingo duen batzar agirikoari buruz.

"Andima Ibinagabeitia Saria" rako deia berriz hartu dela, eta sari honen xehetasunak eta oinarriak idazkari jaunak jakin arazten ditu. Sari hau Carakasko Euskera Lagunen Elkarteak jartzen du.

Azkenik, Literatura sarirako lanak hartzeke epea bete dela eragartzen du euskaltzainburu jaunak. Sarike-ta hau Euskaltzaindiak berak Bizkaiko Aurrezki Kutxaren laguntasunaz jarria da. Batzarrak, orduan, lanok aztertzeke mahai-a hautatu zuen. Haritschelhar, Irigoyen eta Aresti jaunak izan ziren izendatuak.

(Euskaltzaindiko Prensa Bulegoaren agiria)